

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 595/2018 Foru Araua, urriaren 9koa. Onestea azken kontsumitzailearen aitortzen eredu hidrokarburoen gaineko zergaren arloan**

Abenduaren 29ko 1075/2017 Errege Dekretuak aldatu egiten du, besteak beste, uztailearen 7ko 1165/1995 Errege Dekretu bidez onetsitako zerga berezien erregelamendua. Izan ere, al-daketa batzuk sartu ditu, eta horien artean, 106. artikulua 4. apartatuari buruzkoa, zeinak aurreikusten duenez hobaridun gasolioaren azken kontsumitzaileek, hornidura bakoitzerako edo zenbait horniduratarako, beren izaera egiaztatuko diote hornitzaileari, horretarako onesten den ereduarekin bat datorren izenpetutako aitortzen bat aurkeztuta.

Aipatutako al-daketa hau Arabako Lurralde Historikoan da aplikagarri, Ekonomia Itunaren 33. artikulua xedatutakoari jarraituz, estatuak unean-unean ezarritako funtsezko eta formazko arau berberak erabiliko direlako zerga bereziak arautzeko.

Foru agindu honen helburua da zerga berezien erregelamenduaren 106. artikulua 4. apartatuan aipatzen diren aitortzen ereduak onestea.

Zeharkako Zergen Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT**Artikulu bakarra. Azken kontsumitzailearen aitortzen eredu**

Azken kontsumitzailearen aitortzen eredu bi onesten dira hidrokarburoen gaineko zergaren eremuan, hala nola, "Azken kontsumitzailearen aitortzen eredu, zerga berezien erregelamenduaren 106.4 artikulua, Hornidura Bakarra" eta "Azken kontsumitzailearen aitortzen eredu, zerga berezien erregelamenduaren 106.4 artikulua, Zenbait hornidura", uztailearen 7ko 1165/1995 Errege Dekretu bidez onetsitako zerga berezien erregelamenduaren 106. artikulua 4. apartatuan aurreikusten denari jarraituz.

Eredu horiek foru agindu honen I. eta II. Eranskinak dira.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta orde-namendu juridikoak xedatutakoari jarraituz izango ditu eraginak.


Gasteiz, 2018ko urriaren 9a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	Azken kontsumitzailearen aitortpena, zerga berezien arautegiko 106.4 artikulua Declaración de consumidor final, artículo 106.4 Reglamento de los Impuestos Especiales
	HORNIKUNTZA BAT BAINO GEHIAGO ■ VARIOS SUMINISTROS

Ogasun, Finantza
eta Aurrekontu SailaDepartamento de Hacienda,
Finanzas y Presupuestos

1 AITORTZAILEA ■ DECLARANTE	
IFZ ■ NIF	Deiturak eta izena / Sozietatearen izena ■ Apellidos y nombre / Razón social

2 GASOLIOAREN ERABILERA EDO HELBURUA ■ USO O DESTINO DEL GASÓLEO	
Kontsumoaren helburua ■ Finalidad del consumo	
Instalazio mota ■ Tipo de instalación	
Kokalekua (Helbidea) ■ Localización (Dirección)	Herria ■ Ciudad

3 BALIOALDIA ■ PERÍODO DE VALIDEZ	
Aitortpenaren data ■ Fecha de la declaración	Balioaldiaren mugaeguna ■ Fecha límite vigencia

4 AZKEN KONTSUMITZAILEAREN AITORTPENA ■ DECLARACIÓN DEL CONSUMIDOR FINAL	
ZBAko 106.4 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, aitortzen dut aitortpen honetako 2. laukian adierazitako instalazioan eta kontsumo helbururako egindako horniduretarako gasolio hobarituaren azken kontsumitzaile naizela.	A los efectos establecidos en el artículo 106.4 del RIE, declaro ser consumidor final de gasóleo bonificado para los suministros realizados en la instalación y para la finalidad de consumo indicadas en la casilla 2 de la presente declaración.
Aitortpen honek eragite indarra izango du aurreko 3. laukian adierazitako epealdian jasotako horniduretarako.	La presente declaración será efectiva para los suministros recibidos en el periodo indicado en la casilla 3 anterior.

5 SINATZAILEA ■ FIRMANTE	
Izena ■ Nombre	
Sinatzailearen identifikazio agiriaren zenbakia ■ Número de documento de identificación del firmante	
Hau gisa ■ En calidad de	
Sinadura ■ Firma	

Azken kontsumitzailearen aitortpena betetzeko jarraibideak, zerga berezien arautegiko 106.4 artikulua

Hornikuntza bat baino gehiago

JARRAIBIDEAK

Hidrokarbuoen gaineko Zerga

Aitortzailearen identifikazioa

Jarri aitortzailearen identifikazio datuak (IFZ, AIZ, izena eta abizenak / Sozietatearen izena)

Gasolioaren erabilera edo helburua

• Kontsumoaren helburua:

Kontsumoaren helburua "erregaia" baldin bada, hau jarriko da, dagokionaren arabera:

- Etxekoa edo bizilekukoa
- Profesionala

Kontsumoaren helburua "motor-erregaia" baldin bada, hau jarriko da, dagokionaren arabera:

- Traktoreen eta nekazaritzako makinaren propulsiotz motorrak
- Traktoreez eta nekazaritzako makinez bestelako propulsiotz motorrak
- Propulsiotz erabiltzen ez diren motorrak (motor geldikorrak)

• Beste datu batzuk:

Etxeko edo bizilekuko erregai moduan edo erregai profesional moduan kontsumitzeko baldin bada, datu hauek jarri beharko dira:

- Instalazio mota (deskripzioa): berokuntza galdara...
- Kokalekua (helbidea: kalea, zenbakia eta herria)

Traktoreen eta nekazaritzako makinaren erregai moduan kontsumitzeko baldin bada, datu hauek jarri beharko dira:

- Instalazio mota (deskripzioa): Traktorea/nekazaritzako makina

Traktoreen eta nekazaritzako makinaren motor-erregai moduan kontsumitzeko baldin bada, datu hauek jarri beharko dira:

- Instalazio mota (deskripzioa): Tramankulu, aparatu edo ontzi mota

Motor geldikorraren erregai moduan kontsumitzeko baldin bada, datu hauek jarri beharko dira:

- Instalazio mota (deskripzioa): Motor mota, erabilera edo helburua

Balioaldia hornikuntza bat baino gehiagotarako.

Aitortpena sinatzen den data (urtea/hila/eguna).

Aitortpenaren balioaldiaren mugaeguna: (urtea/hila/eguna)

Sinatzailea

Izena: Azken kontsumitzailearen aitortpena sinatzen duen pertsonaren izena eta abizenak jarri behar dira

Sinatzailearen identifikazio agiriaren zenbakia: Sinatzaileak Espainiako NANA edo AIZA baldin badu, IFZren zenbakia jarriko da, edo, horren faltan, hura identifikatzeko bide ematen duen beste edozein agiriarena

Hau gisa: Sinatzailea eta aitortzailea pertsona bera ez badira, adierazi behar da sinatzaileak azken kontsumitzailea den aitortzailearekin duen lotura.

Declaración de consumidor final, artículo 106.4 Reglamento de los Impuestos Especiales

Varios suministros

INSTRUCCIONES

Impuesto sobre Hidrocarburos

Identificación declarante

Cumplimentar los datos de identificación del declarante (NIF, NIE, nombre y apellidos / Razón social)

Uso o destino del gasóleo

• Finalidad del consumo:

Si la finalidad del consumo es "Combustible", se consignará según el caso:

- Doméstico o residencial
- Profesional

Si la finalidad del consumo es "Carburante", se consignará según el caso:

- Motores de propulsión de tractores y maquinaria agrícola
- Otros motores de propulsión distintos de tractores y maquinaria agrícola
- Motores no utilizados en la propulsión (motores estacionarios)

• Otros datos:

Si la finalidad de consumo es como combustible doméstico o residencial, o profesional, deberán rellenarse los siguientes datos:

- Tipo de instalación (descripción): caldera calefacción ...
- Localización (dirección: calle, número y ciudad)

Si la finalidad del consumo es como carburante de tractores y maquinaria agrícola, deberán rellenarse los siguientes datos:

- Tipo de instalación (descripción): Tractor/maquinaria agrícola.

Si la finalidad del consumo es como carburante de otros motores de propulsión, deberán rellenarse los siguientes datos:

- Tipo de instalación (descripción): Tipo de artefacto, aparato o buque

Si la finalidad del consumo es como carburante en motores estacionarios, deberán rellenarse los siguientes datos:

- Tipo de Instalación (descripción): Tipo de motor, uso o destino

Periodo de Validez para varios suministros.

Fecha (día/mes/año) de firma de la declaración.

Fecha límite de vigencia de la declaración: (día/mes/año)

Firmante

Nombre: Se consignará el nombre y apellidos de la persona que firma la declaración de consumidor final

Número de documento de identificación del firmante: Si el firmante dispone de DNI o NIE español, se consignará el número del NIF, o en su defecto cualquier otro documento que permita la identificación del mismo

En calidad de: En el supuesto de que el firmante no coincida con el declarante, se indicará la relación del firmante con el declarante consumidor final.